

# **DIALEKTOLOGIA ETA LINGUISTIKA TEORIAK**

Xabier FALCON ORMAZABAL  
Deustuko Unibertsitatea

## **SUMMARY**

This paper deals with the relationships, and contributions between dialectology and linguistic theories, and, in particular, 19th Century linguistics, structuralism, generative grammar and finally, socio-linguistics. Several examples will illustrate this point of view.

Special emphasis will be given to the relationship between dialectology and sociolinguistics and their contribution to theoretical linguistics.

## **RESUME**

On traite ici des relations et des apports entre dialectologie et théories linguistiques, en particulier la linguistique du 19e siècle, le structuralisme, le générativisme et enfin la sociolinguistique. Plusieurs exemples montrent ces relations et apports.

On marquera surtout les relations entre dialectologie et sociolinguistique et leur apport dans la théorie linguistique.

Dialektologia egiteko era edo metodologia linguistika teoriaren joeren arabera izan da, noski. Araberako hori da txosten honen gaia. Dialektologiak badu eragina hizkuntzalaritzan, baita ere. Dialektologia eta linguistika teoriaren elkarrekiko eragina hartu beharko genuke kontutan ikuspegi osoa goa eman nahi izanez gero. G. Rebuschi jaunak heldu dio gaiari ikuspegi batetik, hizkelki ezberdintasunaren eragina linguistika teoriengan. Nik beste alderdiaren ikuspegia azaldu nahi dut txosten honetan: linguistika teoriaren egitekoa dialektologian.

Hizkuntzalaritzaren kondairan aitortzen diren linguistika teoriak edo joerak XIX. mendeko linguistika mota, Estrukturalismoa, Linguistika Sortzaile Bihurtzailea eta, azkenik, Soziolinguistika dira. Aldez aurretik esan beharra dut teoriak edo joerak garaian garaiko edo lekuan lekuko zientzia egiteko "ikuspegiak" direla. Horretarako, teoria bakoitzak bere programazioa egiten du garaian garaiko eta lekuan lekuko planteamentu eta interesen arabera:

XIX. mendean, batetik hizkuntzen arteko ahaidetasuna eta, bestetik, hizkuntz bakoitzaren historia eta ahaidetasunen bilakaera dira aztergai. Linguistikarako programa hau zehaztu eta osatu egiten da belaunaldi batetik bestera. Gramatikalaria Gazteen (Junggrammatiker) teoriaren aurkako higiduratzat jo izan da dialektologiaren hasera. Zenbaitentzat, besteak beste, arkaismoen gordailutzat hartu izan dira hizkelkiak, Indo-Euoperaren aintzinako formen berreraikuntza lanak zirela-ta. Garai haietan eman zitzaien hasera hizkuntz atlasei. Euskara bera orduko hizkuntzalaritzaren higidura nagusi honen aztergaia izan zen, Bonaparte Printzeari esker.

Hitza eta hotsa dira, batez ere, hizkelkien aztergaiak. Metodologia, alde-raztailea edo konparatista; eta helburua, hizkuntz bakoitzaren dialektoen eremuak isoglosen bidez mugatzea, ahaidetasuna adierazten duten zuhaitz adarren antzera, azken finean. Badago, bada, parekotasuna konparatismoa eta dialektologiaren artean, nahiz eta batzuk hitz bakoitzak bere kondaira berezia duela baieztatu eta beste batzuk, fonetika legeak eta analogia direla-ta, hizkuntzen bilakaera sistematikoa dela frogatzen saiatu.

Estrukturalismoaren garaian, hizkuntzalari estrukturalistak eta dialektologoak elkarrengandik urruntzea adierazten du U. Weinreichek: batetik, estrukturalismoaren kredoarengatik ezinezkoa zaiolako joera horretako hizkuntzalariari dialektologian aritzea; bestetik, dialektologoa ez dagoelako estrukturalismoaren arabera behar bezala jantzia. Estrukturalismoaren barruan 'balioa', 'funtzioa' eta 'sistema' dira kontzeptu nagusiak. Azterpidea edo metodologia, taxonomia (hau da, hizkuntz maila guztietako elementuen bereizketa eta sailkapena). Datuen azalpen paradigmatikoa da Saussuraren eta bere ondorengo hizkuntzalaritzarako programa. "Daitekeena ote da dialektologia estrukturala?" galde egiten du Weinreichek aipatu gabe utzi ezinezko

bere idazlan ezagunean. Zilegi ote zaio estrukturalistari dialektologian aritzea, hau da, sistema ezberdinen arteko datuen azalpen paradigmaticoa egitea?

Baietz dio Weinreichek *Is a structural dialectology possible?* idazlan horretan. Estrukturalisten eragozpen teorikoak gaintitu omen litezke eta, baita ere, dialektologo tradizionalak baliatu behar omen liriteke estrukturalismoak eskeintzen duen teoriak. Bestela, okerreko ikerketa sort omen liteke. Asmatutako honako adibide hau ematen du dialektologia tradizionalaren arabera batetik eta, bestetik, dialektologia estrukturalistaren arabera egindako datu beretsuen azterketa eta azalpenen arteko aldeak adierazteko:

Eman dezagun 'man' delako hitzaren ahoskera hauek jaso ditugula lau informanteengandik:


- |          |           |
|----------|-----------|
| 1- [man] | 1 = 2     |
| 2- [man] | 3 = 4     |
| 3- [mån] | 1,2 ≠ 3,4 |
| 4- [mån] |           |

Materia bakarrik kontutan hartuz, besterik gabe, 1 eta 2 gauza bera direla esan liteke eta baita 3 eta 4 ere. Eta lehenengo biak eta azkeneko biak, bata bestearengandik bereziak. Dialektologo tradizionalak bi talde hauen artean ipiniko luke 'man' hitzari legokiokeen isoglosa. Demagun, ordea, lehenengo informantearen hizkelkian, baina ez bigarrenarenean, bokalak luzeak izatea ezaugarri bereizgarri dela eta, orduan, bereizketa egin litekeela [man] eta [mån] artean; hirugarrenaren hizkelkian, berriz, sudurkarien arteko [a] alofono hutsa dela, baina ez laugarrenarenean. Hau da, ez 'etika', baizik eta 'emika' kontutan hartuz:

- |                |           |
|----------------|-----------|
| 1- [man] /mån/ |           |
| 2- [man] /man/ | 2 = 3     |
| 3- [mån] /man/ | 1,2 ≠ 3,4 |
| 4- [mån] /mon/ |           |

Gauzak horrela, 2 eta 3 informanteen erantzunak berdintsuak liriteke, eta oraingoan bereizketa guttienez hirukoitza litzateke, lehen ez bezala.

Dialektologia tradizionala eta estrukturalistaren arteko bereizketa bakoitzak datu horiekin egingo lukeen maparen bidez adierazten du Weinreichek:



1. ir

Irudi Tradizionala

Estrukturalista

Adibide honekin argi utzi nahi du Weinreichek zer alde dagoen dialektologia tradizionala eta estrukturalistaren artean, erakutsiz nola izango litzatekeen datu beretsuen azterketa eta azalpena, materia soilik ala elementuen arteko oposizioak eta sistema osoa kontutan hartuz gero.

Aipa ditzaket hemen, tarte bat eginaz, Karmele Rotaetxeren tesi lana, G. N'Diayen Amaiurko hizkerari buruzkoa eta Joxe-Agustin Arrietaren Mutrikuko hizkerari buruzkoa. Bide honetako iker-lanak beharrezkoak iruditzen zaizkit euskal dialektologia eta hizkuntzalaritza barruan, gehiago jorratu beharko litzatekeen bidea, beharbada.

“Etika” eta “emika” arteko bereizketa aipatu dugu alde nabarmenena bezala haserako dialektologia eta geroagoko estrukturalismoaren artean. Dena dela, ‘etika’-ko datuak erabiltzea berrikuntza handia izan zen dialektologiaren aldetik izkribuzko datuak erabiltzen zituen orduko hizkuntzalaritzaren aurrean.

Linguistika Sortzaile Bihurtzailearen higidura dugu XX. mende honen bigarren zatian. ‘Emika’ barruan dago estrukturalismoa eta LSBren arteko alde nagusi bat, abstrakzio mailan, alegia. LSBren ikuspegitik lau alderdi hauen arabera bereizten omen dira hizkelkiak bata bestearengandik, fonologia maila dela-ta:

- 1) azpiko egituraren bertan. Hau da, pronostikorik gabe agertzen diren elementuen arabera;
- 2) azpiko egiturei dagozkien erregela multzoaren arabera;
- 3) erregelen erabilpen-inguruen arabera; eta
- 4) erregelen erabilkeraren arabera.

Keyserek (1963) *Review of the Pronunciation of English in the Atlantic States* idazlanean aurkezten dituen datuak dira orain aipatutako aldeak azaltzeko adibide gisa erabiltzen direnak (cf. Saporta 1965). Labur-labur, EEBBko Atlantiko aldeko Estatuetakoa lau hirietako hizkelki hauek dauzkagu: Charleston, New Burn, Winchester eta Roanoke. Besteren artean, /ai/ eta /au/ diptongoei dagozkien ahoskeraren araberako alde batzuk daude lau hiri horien hizkelkien artean. *Five, twice, down* eta *out* hitzak hartuz, honela litzateke hizkelki bakoitzeko ahoskera, /ai/ eta /au/ diptongoak direla-ta:

	/faiv/	/tuais/	/daun/	/aut/
Charleston	ai	ɛi	au	ɛu
New Burn	ai	ai	æu	æu
Winchester	ai	ɛi	æu	ɛu
Roanoke	ai	ɛi	æu	æu

Fonologiako erregelatan datza alofono hauen erabilketa hizkelki bakoitzean. Hauek dira erregelak:

K

*rising*-igotzea: a → ɛ / \_\_ B [-ahos] (1)

*fronting*-aurreratzea: a → æ / \_\_ u (2)

Rochestereko hizkelkiari (1) erregela dagokio; New Burnsekoari, (2)a; Winchester eta Roanoke hirikoei, biak dagozkie, baina ez era berean: (1) eta gero (2) Winchesterekoari, eta alderantzizko eran, hau da (2) (1)aren aurretik, Roanoke hirikoari.

Linguistika Sortzaile-Bihurtzailearekin ikuspegi berria ematen zaio Hizkuntzalaritza osoari eta, honen barruan, Dialektologiari. Estrukturalismoaren abstrakzio maila areagotu egiten du LSB-ak. Adibide batez saiaturako naiz hau azaltzen, Harrisen *Spanish Phonology* lanetik hartua: *estoy, estás, está, estamos, estáis, están* aditz formen lehenengo hiru eta azkenekoa (*estoy, estás, está, están*) anomalotzat jo behar dira espainolezko konjugabideko eta hiztegiko formen aurrean, azentua dela-ta. Salbuespenak salbuespen, azken aurreko silaban daramate azentua espainolez n#, s# edo bokalez amaitzen diren hitzek (adib: *sueño, temas, duermen*); eta azken silaban, n#, s# edo bokalez amaitzen ez direnak (adib.: *mandar, obedecer, constituer*). Horiek horrela, bitako bat: salbuespen gisa hartu behar ditugu *estoy, estás, está, están* formak ala nolabait argitu. Hauxe da Harrisek ematen digun argibidea (eta balio digu adibide honek, azpiko egituraren formulazioa eta erregelen erabil-

pena direla-ta, diakronia eta sinkroniaren uztartzea nola egin litekeen ikusteko):

ahoskera        *estoy, estás, está, estamos, estáis, están*

azpiko egitura: *stoy stas sta stamos stais stan*

*Systematic phonemic*seko adierazpen honetan, forma horiek azenturik gabe eta, gainera, estrukturalistentzako fonema litzatekeen haserako #e gabe izango genituzke. Ondoren bi erregela beharko genituzke agerpen fonetikoaren edo ahoskeraren berri emateko, *e* protetikoarena eta azentuatzearena:

$\emptyset \rightarrow e / \# \text{ — } s + K$  (1)

gaur egun ere espainerak indarrean duen araua, mailebuek erakusten duten bezala (*stop, ski, Spain*), eta

azentuatze araua(k) esan bezala (2)

(azentuatze arauen formulazioaren xehetasunak une honetan ez zaizkigu axola, ezta *estoy* formaren yren paragoea ere).

Eta orain arte azaldutakoarekin, honela moldatuko ginatete anomaloak ziruditen forma horiekin:

A.E.:     *stoy    stas    sta    stamos    stais    stan*  
           *stóy    stás    stá    stámos    stáis    stán* (2)

A.F.:     *estóy    estás    está    estámos    estáis    están* (1)

Lehenik azentuatze erregela (2) erabili behar dugu. Horrela, silaba bakarreko hitzak, silaba bakar horretan izango dute azentua. Besteak, azken aurreko silaban. Bigarrenik, protesiaren erregela (1).

Lehen esan dudan bezala, adibide honek adierazten digu hizkuntzaren alderdi sinkronikoa eta diakronikoaren uztardura. Honek ez du esan nahi, ordea, azpiko egiturak eta fonologiazko erregelak hizkuntz aldaketan bilakaezarekin beti bat datozenik, jakina denez.



*Inbentarioa, distribuzioa, inzidentzia, alofonia* terminoak dira, dialektoen arteko aldeei buruz, estrukturalismoak darabiltzan gako hitzak. *Azpiko egitura, morfemen egiturari buruzko baldintzak (morpheme structure conditons), erregela multzoa, erabilpen ingurua eta erregelen arteko eraketa*, Fonologia Sortzaileak darabiltzanak.

Diakronia ez ezik, diafasiaren azterketa ere hartzen du bere gain LSBk. Eta honekin, Soziolinguistikaren higidurara iristen gara.

Soziolinguistikarekin alderdi berri bat eranstean zaio hizkuntz azterketari: giza mailakatazarena eta, era berean, hizkuntzarekiko jokaerak, jarrerak eta ideologia osoa. Hau da, alderdi objetiboak ez ezik, subjektiboak ere bai hartzen ditu SLk aztergaitzat. Lau puntu interesatzen zaizkit hemen aipatzeko:

- a) SL eta hizkuntz aldaketa
- b) SL, dialektologiaren eremua
- d) Alderdi ideologikoak
- e) Hizkuntza standarra

a) SL eta hizkuntz aldaketa. Hauxe izan zen Laboven aztergaia eta hau da, besteak beste, frogatu zuena: 1) daitekeena dela hizkuntz barruko aldeak eta aldaketen nondik-norakoak egungo hizkeran aztertzea eta 2) bai hizkuntz aldaketen ikerketarako eta bai hizkuntz teoria zehatzerako SLren ikuspegia ezinbestekoa dela. Labovek LSBko *derrigorrezko* eta *aukerazko* erregela motei erregela aldakoi *-variable rule-* motakoa eranstean die. Gogora ekarri nahi ditut klasiko bilakatu diren beheko bi irudi hauek:



Cuadro 5.1. /r/ en Nueva York. Porcentaje de /r/; /r/ en primera (I) y segunda (II) pronunciación de /ourth/ (en blanco) y /floor/ (rayado) de de pendientes de tres grandes almas enes basados en Labov 1972a: 52)

3. ir

2. ir

Dialektologiako datu hauek, uharte batekoak eskubikoak, eta hirikoak ezkerrekoak, ez dira ez *derrigorrezko* ez *aukerazko* erregelen bidez formula-tzekoak, honelako itxura har dezaketen erregela aldakoen bidez baizik:

$$r \rightarrow g [r] / - \left[ \begin{array}{c} k \\ \neq \end{array} \right]$$

$$g [r] = f_{(\text{estiloa, giza-taldea})} \text{ delarik, eta} \\ 1 \leq g \leq 0$$

$$r \rightarrow K \cdot g [r] / - \left[ \begin{array}{c} k \\ \neq \end{array} \right]$$

$$g [r] = f_{(\text{estiloa})} \text{ eta} \\ K \text{ giza-mailaren araberako konstantea direlarik}$$

Azken finean, erregela aldakoiak, isoglosak giza-mailen arabera eta hiz-tun bakoitzaren baitan ere gurutzatu egiten direla adierazten du batetik, eta, bestetik, gurutzatzeko neurria eman nahi du.

b) SL, dialektologiaren eremua. SL egungo dialektologiaren eremua dela esan daiteke. Hiriko dialektologiarekin bat egiten da SL eta ez dira gutxi bai dialektologia eta bai SL arituak/aritzen direnak. Gogoan dut Wolfgang Wölck Dotorea, Sln eta Dialektologian neronek izandako irakaslea eta, besteak beste, Trudgill jauna bera, bat bereziki aipatzearren. Giza-maila eta estilo-mailaren araberako dialektoak -sozio-lektoa eta erregistroa- hartzen ditu aztergai sozio-linguistikak, alderdi diastratikoa eta diafasikoa, beste hitzetan. Badago arrazoirik aztergai berri hauen alde: batetik berritasuna bera eta, bestetik, modernizatzeko/industriatzeko/hiri-tartzea. Ikusi, kasuko, CIEMENek 1.989ko agendan azaldutako datuak:


*Població urbana (1985)*

Finlàndia	64%	Irlanda	57%
Suïsa	58,2%	Hongria	56,3%
Bèlgica	96,3%	Dinamarca	86%
Suècia	83,4%	Noruega	72,8%
Grècia	60,1%	Portugal	31,2%
Austria	56,1%	Països Catalans	78%

(CIEMEN, Agenda 1989)



Aldaerazleak edo faktoreak ugaritu egin dira, bada: lurraldearen arabera-koaz gain, giza arabera-koak eta estiloarenak dauzkagu. Ez da, bada, harritze-koa dialektologia, aldaerazleak ugaritu/aldatu diren heinean SL bilakatzea edo-ta SLrekin bat egitea. Horrela, metodologia eta helburuen berrikuntza dakar SLk: bai informateen eta bai hizkuntz elementuen *sampling* edo *mostrarioa* dela-ta eta datuak lortzeko eta azaltzeko era. Aztergaia dela-ta, dialektologia axola handiagaz dihardu lekuan lekuko hizkeren arteko eta hizkuntza standarreko aldeak arkitzen, eta soziolinguistika hizkeren arteko aldeen esanahia eta ondorioak ikertzen, giza mailen arteko adierazgarri bezala eta hizkuntz aldaketaren eragile bezala. Ikus, adibidez, honako hau:



Cuadro 5.3. /ŋ/ en Norwich. Proporción de /ŋ/ [ŋ] en la tabla de cinco clases socioeconómicas en cuatro estilos. Lista de palabras en *Urban Cox*, posite de lectura (travada), formal (punteado), informal (en negro) (basado en Trudgill 1974a: 92)

#### 4. ir

Tabla 5.5. Asimilación vocálica en el persa de Teherán: uso de las formas asimiladas por siete hablantes en una lectura de una lista de palabras, y por todos los hablantes en su conversación libre (basado en JAHangiri, 1980)

	Asimilación por siete hablantes en lectura de una lista de palabras							Asimilación en habla libre por todos los hablantes	
	A	B	C	D	E	F	G	% asimiladas	Total
/bekon/ 'Do!'	+	+	+	+	+	+		91	331
/bedo/ 'Run!'	+	+	+	+	+			78	23
/bexan/ 'Read!'	+	+	+	+				40	139
/begu/ 'Tell!'	+	+	+					22	132
/bekub/ 'Hit!'	+	+						4	122
/bebor/ 'Cut!'	+							3	124

#### 5. ir

Lehenengo irudiak giza-maila eta erregistroen arabera / $\eta$ /ren ahoskera adierazten du. Bigarrenean azaltzen diren datuek, uhinen teoria, lexiko hedaketa eta arau atxikien teoria -hirurak batera- adierazten dituzte hizkuntz aldatetari buruz.

d) Alderdi ideologikoak ere aztergai direla esan dugu SLren ikuspuntutik. Dialektoa eta hizkuntzaren arteko bereizketa dela-ta, hamaika orri baino gehiago idatzi izan dira alderdi guztietatik. Irtenbiderik gabeko eztabaida horretan hainbat irizpide izan dira erabiliak bereizketarako: irizpide ‘gramatikala’, ‘literarioa’, ‘politikoa’, ‘genetikoa’, ‘hiztun kopurua’ eta ‘lurraldearena’, ‘elkarren arteko ulergarritasuna’ eta ‘irizpide ideologikoa’, literaturan zehar aipatuta arkitu ahal izan ditudanak. Azken hau da axola zaiguna, irizpide ideologikoa.

*Iritziak, jarrerak eta balorazioak* dauzkagu ideologiako tresna barruan. Mugak -definizioak- eraikitzerakoan, ideologiak badu eraginik, noski; eta, metonimiak direla medio (iraizean esanda, hau zabalago azaldu beharko nuke-elako), hizkuntzei buruzko sailkapenak, balorazioak etabar, hiztunei buruzkoak bilakatzen dira. Hona hemen kasu askoren adibide bera:

Katalera ibero-erromanikoa ala galo-erromanikotzat hartzea,


indoeuoperaren hizkuntz baltikoak eslabieraren ala germanieraren adarretik zintzilikatzea,

euskara bera hizkuntz berebere, iberiko ala kaukasikotzat hartzea eta, azkenik, nik uste,

dialekto anitzen nahasketa bezala definitutako hizkerak (*dialect mixture*) edo-ta ‘*de transición*’ direlako hizkuntza/dialektoak.

Horrela, bada, zenbait irizpideren arabera hizkuntz diferentzetat joko liratekeenak, hizkuntza bakartzat jotzen dira beste edozein irizpideri gagozkiolarik -ideologiazkoak barru- eta alderantziz: zenbait irizpideren arabera hizkuntz beretzat joko liratekeen hizkerak, hizkuntza ezberdintzat jotzen dira. Besteak beste, euskaldunok euskaraz hitzegiten omen dugu, baina kataleraren barruan sar litezkeen hainbat hizkera, català, valencià, mallorquí, menorquí edo-ta fragatí<sup>1</sup>, ez omen dira beti eta denontzat katalera hori. Non-noizkoak direla-ta, urritiagoko adibidea ematearren, aipa daiteke Chambers & Trudgillek dakartena:

1. Fraga herriko mekaniko batek erantzun zidan bezala. “*que parles català*” galdetu nio-nean, nahiz-eta bere andregai Mollerusakoa izan eta elkarren artean erdararik ez hitzegini, berak adierazi zidan bezala.



6. ir

Ideologiaren barruan ere, hizkuntz/hiztunenganako aurre-irritziak dauzka-gu aztergai. Espainol idazle ezagun batek, esaterako, biraoak eta hitz gordinak botatzeko adierazpiderik ez duten hizkuntzak, pobretzat jotzen omen zituen.

Hizkuntzei buruzko erretorika da hemen aztergai. Hau da, ez hizkuntzari buruzko datuak, baizik-eta meta-hizkuntzari buruzkoak. Ikusi ondoko testuak.

Batxilergoko liburu batek hauxe dio:

Este fenómeno [*seseo* delakoa] cubre grandes zonas del ámbito español: Andalucía, Extremadura, Canarias, e Hispanoamérica. Y no puede ser considerado como un vulgarismo.

Lo es, en cambio, el seseo de personas poco instruidas en Cataluña, Valencia, Baleares y País Vasco.

(LAZARO & TUSON, *Lengua Española*, Anaya 1977, 60)

Baita beste hau ere:

Cuando un andaluz o un hispanoamericano pronuncia *sarsa* por *zarza* ¿Qué fonemas intenta realizar?

(*Ibidem*, 90)

Eta azkeneko bat ere:

Esta letra, séptima de nuestro alfabeto representa no un sonido sino un ruido, el ruido de espiración. Por más que se llama H aspirada, con dificultad se encontrará un solo lugar en el país vasco en que se aspire de hecho. Es elemento sin vida, no forma parte de ningún sufijo ó elemento de relación. En los elementos de significación (nombre, adjetivo, pronombre, verbo, etc.), es un parásito, elemento prostético.

(AZKUE 1969, 373)

Ez dator, bada, erabat bat errealitatearekin Hudsonek bere testu-liburuan dioena, hizkuntzalari profesionalen artean prejuizioak edo aurre-iritziak gainditurik daudela, alegia. Datu gehiago, profesionalen artekoenak, aipa nitzakeen perlazko lepokoa osatzeko haina.

e) Hizkuntza standarrarena da beste aztergai nagusi bat, bai hizkuntzalariaren alderditik ikusita (hau da, hizkuntzaren batasuna eta eguneratzea), bai giza alderditik ikusita: leialtasuna, prestigioa eta gainerako ondorio guztiekin (onak eta gaitzak). Bi alderdiek dute batak bestearengan eragina, noski. Dakigun bezala, dialekto terminoak izan badu, baita ere, esanahi arrunta eta gaiztoa. Horregatik, hain zuzen, proposatu izan dira askotan alternatiba terminologikoak, edo-ta hainbat zuriztapen egin terminoa erabiltzerakoan. SLk hauek guztiak aztertu eta azaldu egiten ditu eta konponbiderako hizkuntz plangintza eskeini. Baina ez du, bada, hizkera baten alde ala aurka egiten, hiztun kopurua, ospea edo beste edozein arrazoi dela-ta (azken baieztapen honek badu bere testu-artekotasuna, baina ez dut uste txokoko baieztapen hutsa denik, dinamika orokorrari legokiokeena baizik, hizkerekiko jokabideaz beste, giza-jokabide dinamika zabalagoari legokiokeena). Puntu hau aipatzea besterik ez dut orain, gero, era datorkidanean, astiro lantzekotan bainaiz.

Orain arte azaldutakoa bilduz, ikusi dugu azken zati honetan SLren interesa hizkuntz aldaketa dela-ta, XIX. mendeko joerarekin bat datorren interesa. Baita ere, SL dialektologiaren eremua bezala, hiriko hizkuntz azterketa dela-ta. Aipatu ditugu SLk azpimarratzen dituen alderdiak: *diafasia*, *diastatia*, *alderdi ideologikoak -iritziak*, *aurreiritziak* eta *jarrerak*- eta beste hizkera edo dialektotzat hartu daitekeen hizkuntza standarra. Laboven *erregela aldakoa*, Bickertonen *arau atxikiak* eta Eleanor Roschen *eredu nagusi edo prototipoen teoria* azpimarratuko nituzke alderdi interesgarriak bezala linguistika *heavy*-ren teoriarako eta dialektologiarako.

LSBk, bariazioaren abstrakzioa egiterakoan, zera hartzen du abiapuntutzat: ereduazko hiztunaren gaitasuna eta hizkera; idiolekto ezin hobea, alegia. Bariazioa kontutan hartu nahi badu, ordea, badu irtenbidea sintasizko *sakoneko egitura* eta fonologiazko *azpiko egitura* direla-ta, eta, baita ere, *erregelen erabilpena* eta *erregelen arteko eraketak* direla-ta, ikusi dugun bezala. Halaber, *lexical difusion* teoria dela-ta. Azpimarratu nahi dut berriro, bai alderdi diafasikoak eta bai alderdi diakronikoak garrantzizko zaletasuna suspertu duela LSBarengan.

Estrukturalismoari, hasera batean, sistema kontzeptua dela, nolabaiteko auzia planteatzen zaio dialektologia eta linguistikaren elkarkizuna dela-ta. *Idiolektoa*, *dialektoa*, *hizkuntza* eta *diasistema* (eta are gehiago *diasistemen sistema*) kontzeptuak, dira, besteak beste, elkarren uztardurarako datozkigunak. Estrukturalismoa gramatikalarik gazteen higiduraren bilakaera da, noski. Gramatikalarik gazteen garaian agertzen dira estrukturalismoaren oinarri sen-

doak. Gramatikalariek eta dialektologoek osatzen dituzte haserako garai haie-tan interes eta jarrera diferenteko bi talde. Handik aurrera bereizketak ez du funtsik, teoriak planteatzen duen auzia edozein adimeni planteatzen zaiona baita, eta ez bereziki talde bateko edo bestekoari. Higidura guztien arteko ete-nen baitan badago etengabeko batasuna, eta aldeak zehazte lanetan daudela esan daiteke.

Hizkuntza eta dialektoaren arteko bereizketaren arazoa eta honek teoriari czartzen dizkion eragozpenak mintzagai tipikoak eta topikoak bilakatu dira. Azpian dagoen arazo zabalagoaren ondorioa besterik ez da, muturrekoak diren zientzia eta kasuistikaren arazoak: “*Hitz bakoitzari bere historia dago-kio*” baiezipenarekin zuzendu nahi da gramatikalaria gaztetxoan teoria. Saussuraren hizkuntzari buruzko definizioaren kasuan, hots “giza batzabeste-ko adostasuna eta lengoaiaren produktoa”, arazoa zera da: batzabeste-ko hori, ebaketa multzoa den ala batuketa multzoa. Lehenengo kasuan ezer guttik osa-tuko luke hizkuntzaren sistema eta ezer gutti esan liteke hizkuntzari buruz. Bigarrenean, asko bai esan liteke, baina kasuistika barrukoa. Bien kasuetan, zientziarik ez. *Hitz bakoitzak bere historia du, dialect mixture, dialecto de transición* mutur batekoak bezala jarri litezke; gramatikalaria gazteen *fonetika legea*, estructuralisten *sistemaren* aldeko planteamentua eta LSBkoen *ereduz-ko hiztun-entzule* delakoaren abstrakzioa, beste muturrean.

William Labov-i New Yorkeko hizkerak holako erronka modernoa jar-tzen zion. Hizkuntzari buruzko datuekin kasuistika hutsa besterik ezin ote lite-keen egin, ala zientzia egin ote litekeen, baiezipen orokorrak, alegia. *Erregela aldakoi-en* formulazioa, arau *atxikiak* eta *lexical diffusion* teoriak (*hitz bakoit-zak bere historia du* zelakoaren erabide berria edo modernoa, azken finean) ustezko kaosaren sistematizatze-ko irtenbideak nahi dute izan, eta, izan ere, badi-rela uste dut. Zientzia lortze-ko ahaleginen ondorioa direla esan liteke teo-rien bilakaerak.

## Bibliografia

- BAYLEY, Charles-James, 1973, *Variation and Linguistic Theory*, Center for Applied Linguistics, Washington.
- BICKERTON, Derek, 1975, *The Dynamics of a Creole System*, Cambridge University Press, Cambridge.
- CHAMBERS, J. K. & Peter TRUDGILL, 1980, *Dialectology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- FRANCIS, W. Nelson, 1983, *Dialectology: An Introduction*, Longman, London and New York.
- HARRIS, James W., 1969, *Spanish Phonology*, M.I.T. Press, Cambridge, Massachusetts and London, England.
- KEYSER, Samuel J., 1963, “Review of the pronunciation of English in the Atlantic States”, *Language* 39, 303-316.
- LABOV, William, 1981, “Resolving the neogrammarian controversy”, *Language* 57, 267-308.

- NEWTON, Brian, 1972, *The Generative Interpretation of Dialect*, Cambridge University Press, Cambridge.
- SHUY et al., 1968, *Field Techniques in Urban Language Study*, Center for Applied Linguistics.
- THOMAS, Alan R., 1967, "Generative phonology in dialectology", *Transaction of the Philological Society*, 179-203.
- WEINREICH, Uriel, 1954, "Is a structural dialectology possible?", *Word* 10, 388-400.
- WEINREICH, LABOV, HERZOG, 1968, "Empirical foundations for a theory of Language change", in LEHMAN, W. P. & Yakov MALKIEL, 1968, *Directions for Historical Linguistics*, University of Texas Press, Austin & London, 97-195.